

**LHUI-RAKO, ORDEZKAPEN BAT EGITEKO, TAILER MAISU KATEGORIA DUEN IRAKASLE BAT HAUTATZEKO DEIALDIA.- (P08-161 ESPEDIENTEA).****LHUI-RAKO, ORDEZKAPEN BAT EGITEKO, TAILER MAISU KATEGORIA DUEN IRAKASLE BAT HAUTATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.****LEHENA.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honen helburua bada, ordezkapen bat egiteko, Tailer Maisu kategorian duen irakasle bat hautatzea.

Deialdiari buruzko informazioa:

Udaletxeko Informazio Bulegoan (Herriko Plaza 1). Astelehe ostiralera bitarte, 9:00-14:00 ordutegian.

Web: www.laudiokoudala.net

Lanpostuaren ezaugarriak:

- Lanpostua: LHUI-ko Tailer Maisua
- Ordainketa maila: Lanbide Heziketako Udal Ikastexeko Lan - Hitzarmeneko Tailer Maisua: 36.579,36 € gordin urtean. Lan eta ordainketa baldintzak homologatuta daude Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko Irakaskuntza Publikoko irakasleekin.
- Titulazioa: Elektrizitate/Elektronika familiako Goi Mailako Prestakuntza Zikloa, Elektrizitate arloko LHII, Maisutza Industrial Elektrikoa, Ingeniero Tekniko Elektrikoa edo Goi Ingeniero Elektrikoa.
- Izendapenak iraungo duen epean zehar, obligazioz libre.
- Hezkuntza arloan lan egin izana hobetsiko da. Hezkuntza zentro baten testuinguruarekin familiarizatuta (irakasle eskarmentua...)
- Hezkuntza arloko 2. Hizkuntza Eskakizuna, EGA edo baliokidea.

Funtzioak:

Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako irakaskuntza ematea..

BIGARRENA.- HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hautagaiek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak bete behar dituzte, eskaerak aurkezteko seinalatutako epea amaituko den egunean:

1. Nazionalitatea. Nazionalitate espainiarra izatea.



2. Lanak eta zereginak gauzatzeko gaitasun funtzionala izatea.
3. Adineko 16 urte beteta izatea eta, hala bada kasua, derrigorreko erretiroko gehieneko adina baino gehiago ez izatea.
4. Titulazio hauen jabe izate: Elektrizitate/Elektronika familiako Goi Mailako Prestakuntza Zikloa, Elektrizitate arloko LHII, Maisutza Industrial Elektrikoa, Ingeniero Tekniko Elektrikoa edo Goi Ingeniero Elektrikoa eta Hezkuntzako 2. Hizkuntza Eskakizuna, EGA edo baliokidea.
5. Administrazio Publikoaren zerbitzutik diziplina-espeditente bitartez baztertuta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez egotea.

HIRUGARRENA. ESKAERAK

Hautatze-prozesuan onartua izateko eskaera idatziak Alkate - Udalburuari zuzendu behar zaizkio, Erregistro Orokorreko bulegoan eskura dagoen eredu normalizatuan eta bulego horretan, bertan, aurkeztu behar dira **8 lan eguneko epearen barruan**, hau da, 2008ko azaroaren 18tik 25era bitartean, biak barne hartuta.

Baztertuak ez izateko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

Hautagaiek Bigarren Oinarrrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela idatziz jasota - adierazita utzi beharko dute.

Kalifikazio Epaimahaiak alegatu merezimenduen balorazioa egiteko, izangaiek aurkeztu beharko dituzte, eskaerarekin batera, merezimendu horien egiaztapen justifikanteak; une horretan aurkezten ez den merezimendurik ezin izango du baloratu Epaimahaiak.

Euskararen erabiltzen badakitela ziurtagiri bidez egiaztatu behar dute hautagaiek.

LAUGARRENA.- HAUTAGAIEN ONARPENA

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Alkate-Udalburuak ebazpena hartuko du onartu eta baztertutakoen zerrenda onartutzat joz eta gertatutako hutsak zuzentzeko hiru (3) laneguneko epea eskainiz. Ebazpen hori Udaletxeko Iragarkien Oholtzan eta Udalaren Web orrian erakusten jarriko da eskaerak aurkezteko epea amaitu osteko hirugarren lan egunean eta bertan zehaztu eta adieraziko da ariketak non eta noiz hasiko diren.

BOSGARRENA.- KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA

Hona izango duen eraketa:

Batzordeko burua:

-Titular: Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloko Arduraduna, M^a Jose Ikaran Salegui andrea.

Ordezkoa: Korporazioko Idazkari Nagusia, M^a Arantzazu Lili Salazar andrea.

Epaimahaikideak:

- Titular: Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeko –LHUI- Zuzendaria den Javier Aiz Salazar jauna. Ordezko: LHUI-ko irakaslea den Jose Ramon Campo Larrinaga jauna.

- Titular: LHUI-ko Ikasketa-burua den Jose Carlos Duque jauna. Ordezko: LHUI-ko irakaslea den Santiago Laresgoiti jauna.



- Titular: LHUI-ko irakaslea den Carlos Lolo jauna. Ordezkoa: LHUI-ko irakaslea den Carlos Ruiz jauna.

Idazkari:

- Funtzio Publikoren Arloko Burua, Beatriz Carrero Vegas andrea.
- Ordezko: Ogasun Arloko Goi-Mailako Teknikaria, Gerardo Elejalde jauna, hizpide eta bozka eskubidez.

Epaimahaiak egoki irizten dizkion profesional edo enpresen aholkularitza eskatu ahal izando du.

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZEDURA

Laudioko INEM eta LANBIDE bulegoetan eskaera generikoa aurkeztuko da eta iragarkien taulan eta udalaren web orrian argitaratuko da. Eskaera aurkeztuko duten hautagaiekin, kontratu behar den pertsona hautatzeko prozesua ondorengo hauxe izango da:

1. Elkarrizketa profesionala. (15 puntu)

Hautagaiei dei egingo zaie Epaimahaiarekin elkarrizketa bat izateko, lanpostuaren funtzio eta zereginetikiko hautagaien lanbide-egokitzapen profesionala baloratzeko helburuaz. Froga hau gainditzeko 7,5 puntu lortu behar dira. Puntuazio hori lortuko ez dutenak, hautatze-prozesutik kanporatuta geratuko dira.

Elkarrizketa gainditutako hautagaiak merezimenduen balorazioan sartuko dira, non baloratuko diren, beti eta III Oinarri – Arauarekin bat, eskaera idatziarekin batera aurkeztu badira behar den legez justifikatuta:

2. Merezimenduen balorazioa.

Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu:

- Lanpostuako funtzioekin **zuzenean** erlazionatutako gaietan prestakuntza osagarria: Gehienez **5 puntu** baloratu da, ondorengo era honetan:

Ikastaroak:	
5-9 ordu artekoak	0,10 puntu.
10-19 ordu artekoak	0,20 puntu
20-59 ordu artekoak	0,35 puntu
60-99 ordu artekoak	0,50 puntu
100-199 ordu artekoak	puntu 1
200 ordutik gora	2 puntu

Ikastaroetara bertaratzeagatik merezimenduak ikastaro horiek antolatu dituen Zentro Ofizialak emandako ziurtagiri bidez, ikastaroaren izena zein izan dituen iraupen orduak jaso araziz. Ez dira baloratuko zenbat ordu iraun duen zehaztuta ez datorren ikastaro ziurtagiriak. Gai berdinari buruzko ikastaroak aurkeztuko balira, orduen zenbatekoa gehitu eta ikastaro bakarra izango balitz legez puntuatuko litzateke.

Eskarmentua izatea lanean: Gehienez **10 puntuz** baloratuko da.

- Elektrizitate espezialitatean irakasle legez edo egindako lanak, eskarmentua, prestatutako zerbitzuen agiri bidez justifikatuta,, edozein harreman juridiko tarteko,



salbu eta zerbitzu zibil edo merkataritzakoen alokairu-kontratuak, bekak eta prestakuntzarako praktikak, eskarmentu hilabeteko bakoitzeko 0,10 punturen arabera.

Prestatutako zerbitzuen denbora egiaztatu beharko da ziurtagiri bidez zerbitzu horiek Administrazio Publikoetan prestatu badira ala lan-bizitza bidez eta dagozkion kontratuen kopien bidez.

ZAZPI. EPAI-MAHAIAREN PROPOSAMENA

Hautaketa-prozesua amaituta, Epai-Mahaiak frogak gainditu dituzten hautagaien zerrenda eta hautatuko hautagaia zein den agerikoa egin eta argitara emango du Epai-Mahaiak izendatua izateko proposatuko duen hautagaia guztirako puntuazio handiena lortu duena izango da.

Zerrendako hurrengo hautagaiak, baldin baleude, puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeran zehaztuta, Epai-Mahaiak proposatuko ditu langile titularraren balizko ezegoteak ordezkatzeko zerrendan sartzeko.

Hautatutako izangaiak, hala ordezkapen zerrendarako, nola izendapenerako, Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute Bigarren Oinarri-arauan eskatutako baldintzak egiaztatzeko eta kontuan hartutako merezimenduen dokumentazioa.

ZORTZIGARRENA. IZENDAPENA

Alkatetza Udalburutzak ebatziko du Epaimahaiak proposatutako hautagaiaren izendapenaz, hala nola ordezkapenen zerrenda osatuko duten hautagaien errenkada.

BEDERATZIGARRENA. ARAZOAK

Epai-Mahai Kalifikatzaileak eskumena du aurkeztu ahal zaizkion zalantzak ebazteko eta Oinarri-arauotan aurreikusi gabeko guztian prozesuaren ordenu onerako hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere Oinarriak eta honen eta epaimahaiaren jardunen ondoriozko administrazio egintza oro aurkara daiteke indarrean dagoen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko Legean eta Administrazioarekiko Auzibidea arautzen Legean ezarritako kasuetan eta formaren arabera

Laudio, 2008-11-17